

ELGETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA SORTZEKO PROZESUA

11.SAIOA	PARTAIDEAK
2023-04-19 18:30-20:00	Herritarrak: 11 (2 emakume, 9 gizon)
	Udala: Ibai Larrañaga (ingurumen zinegotzia), Iraitz Lazkano (alkatea).
	Dinamizazioa: Oier Etxeberria (Goiener), Uxune Alustiza (Emun Koop.E)

1. Herritarren interesa instalazioan

Norbanakoak

Instalazio fotovoltaikoan parte hartzeko interesa 34 lagunek azaldu dute, baina 23 CUPS dauzkagu. 11 lagun horiekin harremanetan jarriko gara.

Mahaiak jarriko ditugu jende gehiagok izena emateko aukera izan dezan:

- Apirilak 21, ostirala, 19:00etan.
- Maiatzak 5, ostirala, 19:00etan.

Panfletuak eta izen-emate orriak eraman. Kartelak egin daitezke panfletuak handiago inprimatuta, mahaietan jartzeko.

Komertzioak eta ostalariak

Komertzio eta ostalari batzuk sartzen badira, oraingo kopuru hauekin nahikoa izan daiteke proiektua bideragarri izateko. Arazoa izan daiteke alokairuan daudenek inbertsioa egin nahi ez izatea.

Barne araudia egiten dugunean, jaso beharko da:

- Negozioa traspasatzen denean, instalazioa ere bai, eta ze baldintzatan.
- Ixten bada, dirua zenbat eta nola bueltatu.

Erronda egingo dugu dendaz denda eta tabernaz taberna. Elkarte gastronomikoekin ere jarriko gara harremanetan.

Datu bilketaren ondoren

CUPS eta datu guztiak dauzkagunean, baloratuko dugu ea beste aurkezpenik egin behar dugun.

Interesatu bakoitzari email bat bidaliko diogu, esanez zenbat Kw izango dituen, ze inbertsio egin behar duen, ze aurrezpen izango duen... datu errealekin.

2. Kooperatiba eratzea

Estatutuetan zuzenketa batzuk egin dizkigute. Horiek egin eta bukatuta egongo dira. Hurrengo lana izango da barne araudia sortzea.

Maiatzak 10, asteazkena, eratze batzarra:

- Kontseilu errektoreko 7 kideak eta 3 ordekoak elkartu, akta sinatzeko.
- Kide bakoitzaren datu zehatzak behar dira. Aurrez bidaltzeko eskatu: NA, helbidea, egoera zibila, ezkontza erregimena eta lanbidea.

- Derrigorrezko hiru karguei (lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria) ahalmena emango diegu notaritzara eurak bakarrik joateko, gainerakoon izenean.
- Goienerrrek akta eredia badauka.

Kontseilu errektoreko kideen eta ordezkoen zerrenda osatu dugu. Bi falta zaizkigu, bileran falta zirenei galdetuko diegu. Lehendakaria Roberto, idazkaria Enaitz, eta lehendakari ordea izendatu gabe oraindik.

Eratze batzarraren aurretik egin beharrekoak:

- Kontu korrontean 3000€ sartu (udalaren ekarpena). Goienerrrek badauka k.k. bat honelako gauzatarako. Tramitea asko errazten duenez, Goienerrren kontua erabiltzea erabaki dugu.
- Kontseilu errektoreko kide bakoitzak 40€ sartu kontu horretan, bazkide egiteko.
- Goienerrri ziurtagiri bat eskatu, egindako ingresoak nor eta zenbat egin dituen (notaritzarako behar da).

Udalaren ziurtagiria eskatu udal idazkariari, udalaren ordezkaria kontseilu errektorean nor izango den adierazten duena, plenoan erabaki bezala.

3. Aurrera begira nola antolatu

Hiru taldetan banatuta, etorkizun hurbila irudikatu dugu, fitxa batzuk erabilia.

Urtebete barru ixotzen nola ikusten dugun proiektatu dugu. Titularrak:

- Ixotzenen lehen proiektua martxan: bazkide kopuru esanguratsua, proiektu errentagarria, EVeren diru laguntzak onartuta, herritarren babes zabala, 2.proiektua esku artean eta aholkularitza zerbitzua martxan.
- Ixotzenek bere bigarren sorkuntza proiektua aurkeztu du.
- Ixotzen urtebete Elgeta pizten: azken urtebete honetan, gero eta herritar gehiago batu da Ixotzenek planteatutako proiektura. Honen ondorioz, proiektu berriak sortzeko beharra ikusten da.

Kontseilu errektorea = talde sustatzailea

Kontseilu errektoreak ez du aparteko bilerarik egingo, ez bada formalismoren bat egin behar dela. Talde sustatzailea izango da, orain arte bezala, motorra. Talde sustatzailean hartuko dira erabakiak. Bi astez behin elkartzen segituko dugu.

Lantaldeak

Orain arte, lan egiteko modua izan da beharra egon denean elkartzea: komunikazioko lantaldea pare bat aldiz elkartu da, proiektuen lantaldea beste pare bat aldiz, eta juridiko-administratiiboak online egin ditu lanak. Ondo moldatu garenez, horrela segitzea adostu dugu, eta beste lantalderik ez sortzea. Xehetasun batzuk:

- Komunikazioko lantaldea: 3-4 lagun finko izatea komeni da. Rol hauek eduki behar ditugu: Community Manager izaera, euskarriak prestatzea eta harremanetarako.
- Proiektuak: ezagutza tekniko duen norbait egotea ondo legoke, ingeniari bat edo. Proiektuaren arabera izango da hori. Proiektu bat baino gehiago baldin badauzkagu, lantalde bat baino gehiago egongo direla aurreikusi dugu.
- Juridikoa: 2 lagun. Gestoria batekin egiten baditugu gestio batzuk, hauetako bat izango da kontaktua.

Batzar orokorra: urtean behin derrigor egin behar da batzarra. Horrekin nahikoa. Besteren bat egiteko beharra ikusten bada, ezohiko batzarra deitu behar da.

Talde sustatzailea

Badaude berehala hartu behar ditugun ardura batzuk, bilerak operatiboak izan daitezten:

- Bilerak prestatu eta deialdiak egin: komunikaziokoek. (Ibai aipatu da)
- Bilerak dinamizatu: behin bilera ondo prestatuta baldin badago, edonork egin dezake. (Enaitz aipatu da)
- Bileran akta jaso: txandaka egin daiteke, egunean bertan aukeratuta nork egin.
- Etxeko lanen eta konpromisoen jarraipena egin: Roberto aipatu da.

Hurrengo bilera Enaitzek prestatuko du, eta bertan landuko dugu ardura banaketa.

4. Itxiera

Ibaik patata tortillak, pastak eta edaria ekarri ditu. Eskerrik asko!

Hurrengo bilera: maiatzak 3, asteazkena, 18:30ean.

5. Etxeko lanak

ZER	NORK
<ul style="list-style-type: none"> - Mahaietan jartzeko materiala prestatu: panfletoekin kartelak egin. - Mahaietan egon (izena eman dugunok). 	<p>Enaitz Izena eman dugunok.</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Komertzio, ostalari eta elkarte gastronomikoekin erronda. 	<p>Enaitz</p>
<ul style="list-style-type: none"> - CUPSa eman ez duten 11 lagunekin egon. 	<p>Komunikaziokoak.</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Estatutuetako zuzenketak egin. - Barne araudiaren eredurik badagoen enteratu: Bergarakoei galdetu, Hernanikoei... 	<p>Iraitz</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Kontseilu errektorerako falta diren 2 lagunak lotu. - Kontseilu errektoreko kide izango direnei datu guztiak eskatu eta 40€ non sartu esan. 	<p>Iraitz</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Udalaren ekarpena kontu korrontean. - Udal idazkariari ziurtagiria eskatu: udal ordezkaria KEn Iraitz izango dela. 	<p>Iraitz</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Goienerren kontu korrontea eta eratze akta eredu bidali. - Dinamizaziorako ereduak pasa: bilerako gaiak prestatzeko eredu, akta eredu, bileretarako ardura zehatzen zerrenda/taula. 	<p>Oier Uxune</p>

Eranskinak

TITULARRA: IXOTZEN LEHEN PROIEKTUA HARTZAN

Sarrera, azpitulua: Batzide kopuru esanguratsua, PROIEKTU ERRENTAGARRI ENE-NEK DIRU JAGUNTIAK ONARTETA, HERRITAREN ZABES ZABALA, 2. PROIEKTUA EKIBARTEAN, + AHOLKULARITZA TERBITUA HARTZAN.

Irudia: egin marrazkia

ANTOLAMENDUA

Osaera:
- Komunitate mugagarrak
- Eskumenak +
- Hainbat zerebituak

Osaera:
Proiektuko 3-4

Osaera:
2 Pertsona gutxienez.

Osaera + funtzioak:

Hausnarketarako galderak:
- Zenbat pertsona talde sustatzailean?
- Ordezkaritza bidez ala denak?
- Kontseilu errektorea = talde sustatzailea?

FUNTZIONAMENDUA

	Maiztasuna	Iraupena	Tokia
Batzar orokorra	urtean 1	60	Udako Asteleak
Kontseilu errektorea			
Talde sustatzailea	2-3 aste	90	Udako Asteleak
Lantaldeak	Beharrezko araberak		

Hausnarketarako galderak:
- Lantalde aldatu nahi du norbaitek?
- Lantalde berririk bai? Ze funtzioekin?
- Lantaldeak bideragarri ikusten dituzue? Edo talde sustatzailearekin nahikoa da?

Kontseilu Errektorearen zereginak:
Formalisismoak

TITULARRA: KOTZENEN BERE BERRIKUNTZA PROIEKTUA AURKATU DU!!

Sarrera, azpitulua:

Irudia: egin marrazkia

ANTOLAMENDUA

Osaera:
Indibid.

Osaera:
Indibid. -> proiektu berririk aukerak agertu.

Osaera:
Indibid. -> Gobiernuaren berririk? Edo berririk agertu?

Osaera + funtzioak:

Hausnarketarako galderak:
- Zenbat pertsona talde sustatzailean?
- Ordezkaritza bidez ala denak?
- Kontseilu errektorea = talde sustatzailea?
- Talde sustatzailea handiagoa da? Edo talde sustatzailearekin nahikoa da?

FUNTZIONAMENDUA

	Maiztasuna	Iraupena	Tokia
Batzar orokorra			
Kontseilu errektorea			
Talde sustatzailea			

Hausnarketarako galderak:
- Lantalde aldatu nahi du norbaitek?
- Lantalde berririk bai? Ze funtzioekin?
- Lantaldeak bideragarri ikusten dituzue? Edo talde sustatzailearekin nahikoa da?

Kontseilu Errektorearen zereginak:

TITULARRA: IXOTZEN URTESETE ELGETA PIETEN

Sarrera, azpitulua: IXOTZEN URTESETE ELGETA PIETEN

Irudia: egin marrazkia

ANTOLAMENDUA

Osaera:
4 pertsona

Osaera:
gobiernu 2

Osaera:
Eragin teknikoak dauka bat

Osaera:
gobiernu 2

Osaera + funtzioak:

Hausnarketarako galderak:
- Lantalde aldatu nahi du norbaitek?
- Lantalde berririk bai? Ze funtzioekin?
- Lantaldeak bideragarri ikusten dituzue? Edo talde sustatzailearekin nahikoa da?

FUNTZIONAMENDUA

	Maiztasuna	Iraupena	Tokia
Batzar orokorra	Urtean 2 bidera	90'	Epauri
Kontseilu errektorea	Hilean 2 aldiz	60'	Udako Asteleak
Talde sustatzailea	Hilean bidera	90'	Udako Asteleak
Lantaldeak	Hilean bidera	90'	Udako Asteleak

Hausnarketarako galderak:
- Lantalde aldatu nahi du norbaitek?
- Lantalde berririk bai? Ze funtzioekin?
- Lantaldeak bideragarri ikusten dituzue? Edo talde sustatzailearekin nahikoa da?

Kontseilu Errektorearen zereginak:
Dan taldean kua jaso eta bideratu.
IXOTZEN ONDORRUA URTEAK ZEHAR eta martxo.

BEREHALAKO KONPROMISOAK TALDE SUSTATZAILERAKO				
	Zeregin zehatzak	NORK	NORK	NORK
Bilerak prestatu eta deialdiak egin.	<ul style="list-style-type: none"> - Lantalde bakoitzaren beharrak eta proposamenak jaso. - Bileraren helburua eta bukatzean eduki nahi den emaitza definitu. - Bilerako gai zerrenda idatzi eta gai bakoitzari denborak esleitu. - Lantaldeetako ordezkari banarekin gai zerrenda kontrastatu. - Deialdia bidali gai zerrenda orokorrarekin. 	Komunikazioa	IBAI	Idazkariak kontrole emektoreak Idazkariak kontrole emektoreak kontrole emektoreak
Bilerak dinamizatu	<ul style="list-style-type: none"> - Sarrera beti egin: saioaren helburua eta gaiak azaldu. - Denbora zaindu (beste norbaitek egin dezake). - Gaiak zaindu: adostutako gaiak lantzen direla bermatu eta berriak kudeatu. - Parte-hartzea zaindu: partaide guztiei ahotsa eman, parte hartzea sustatzeko dinamikak egin... - Itxiera beti eman: etxeko lanen eta konpromisoen errepassoa, eta hurrengo hitzordua adostu. 	"Edonork"	ENAITZ	kontrole emektoreak
Bileren akta jaso	<ul style="list-style-type: none"> - Bileran bertan oharrak jaso. - Bilera ondoren, akta formatu digitalean jaso eta bidali, bilera egin den egunetik gehiegi luzatu gabe. - Aktarekin batera, etxerako lanak gogorarazi. 	Idazkari "vola" Aldatu egin daitezke	IBAI	Idazkariak
Etxeko lanen eta konpromisoen jarraipena egin	<ul style="list-style-type: none"> - Etxeko lanen jarraipenerako taulan etxeko lanak sartu. Driven dokumentu partekatu bat izan daiteke. - Bileratik bilerara, lantaldeetako ordezkarietara etxeko lanen <u>gogorazte</u> mezua bidali. 		ROBERTO	
Besterik				